

NOLA EZ DAKIZUN HORI

- 1.- Itxi gabeko zauri ta
 lur jotako zero pusken
 hondakinekin zaila da
 ongizatea gorpuzten.
 Hitza hotsari keinuka,
 ikara beldurra puzten,
 garai batean atea
 sokaz zabaltzen zituzten;
 orain serrail ta alarmak
 baino ez ditut ikusten,
 hara itzalen itzalek
 nora eraman gaituzten!
 Ametsei ere ez zaie
 lotara geratzen uzten.
- 2.- Ateoak katedradun,
 kaletarrak artaburu,
 mikroskopio aurrean
 astegun nahiz asteburu;
 teknologia berriak
 ta robotika helburu,
 pilula majikoekin
 tematuta dihardugu...
 Tradizioei et, et, et,
 iraganari tururu,
 munduak alimaleko
 abiadura hartu du,
 etorkizunera ere
 orain iritsi nahi dugu.
- 3.- Aski ez euri tantak ta
 eguzkiaren distira,
 tomateei sulfatoa,
 babarrunei pestizida.
 Gaurko umeez ez dute
 pizza besterik desira,
 masa zapal koipetsu bat
 ta gainean bi oliba...
 Limoia ura isurtzen zait
 plateretara begira,
 piperrik ulertzekotan
 bi arrautza behar dira,
 gure menua gehiegi
 (h)a(n)burgesatzen ari da.
- 4.- Orain semeak baleta,
 orain alabak dotrina,
 gero supermerkatua
 hustu iskinaz iskina.
 "Aita, nik Kas limon nahi det",
 "Ama, nik zumo de piña",
 poltsak berrogei xentimo,
 hamabi euro parkina...
 Noiznahi ostia soinua,
 maldizio ta zikina,
 eramangarriagoa
 litzateke gure mina,
 okerrago bizi arren
 hobeto hilko bagina.

5.- Egunean bost lanordu,
urtean hiru bidaia,
Aste Santua Parisen,
Baqueiran eski garaia,
Hollywoodeko glamourra,
Elizondoko paisaia,
dantzaldi amaigabea,
ajerik gabeko jaia...
Behar dudan maitalea,
maite nauen senargaia,
kale-kantoi itsu bat da
gure borroka-zelaia,
ezer galdu ezina ta
dena irabazi nahia.

6.- Abiadura Handiko
Trena da suge-sugea,
zainak pozoiz mailukatzen
ari zaigun ingudea;
porlanez eta adreiluz
josi dugu orubea,
agur harizti itzaltsu,
agur baso ainubea!
Bizkarrean hotzikara,
sudurrean azkurea,
kontzientziari pasa
behar zaio ITVa,
gu gara munduarenak,
mundua ez da gurea.

7.- Ezin izan dugulako
porrotarekin berdindu,
bihotzak ez al zaizkigu
gorrotoaz maitemindu?
Auto-determinaturik,
ez hanka ta ez txirrindu,
zerua ez da ileen
neurri berean urdindu.
Nahiz lurrak gizakiari
maita dezala agindu,
sustraietara errotzen
ez da asko ahalegindu,
menditik kalera eta
goitik behera egin du.

8.- Nahiz eta sateliteek
argi printzak iragarri,
biharamuna ezin da
asmo hutsez erakarri.
Ahoa ez bada aho
ta belarria belarri,
Jainko garela alferrik
egingo dugu aldarri;
irla bakartien gose,
auzoko behien egarri,
errape lehorrak saltzen
aritu gabe elkarri,
mugak onartutakoan
izango gara mugarri.

9.- Ez dut nahi kutsatutako
lerrobururik Berrian,
ez maiatzik urrian, ez
negurik udaberrian;
oinetan abarka beltzak,
segapotoa gerrian,
urratsak pauso txikika
eta neurriak neurrian.
Izan fedea langile
xumearen izerdian,
egunez loa bezatu,
amets egin gauerdian,
atzera bizi gaitezen
aurrera doan herrian.

DOINUA: ETAre su-etenetik.

IZENGOITIA: Baztan.